

LEGE ZARRA KENTZEN

3.-ESPARTEROERREGE-ORDE (1841-1843)

Urte onen inguruan aldakuntzak bein eta barriro egi-
ten dira, batean lege zarra kendu eta bestean ipiñi. Biz-
kaitarrak sendo agertzen dira beti lege zarraren alde eta
españatarrak beti Laterri-legea España osoan bardin
betetearen alde.

Maria Kristinak alegiña egin eban lege zarraren alde,
baiña erbesteratu egin eben eta Marsellan bizi zan. Andik
sarritan agertzen dau Espartero errege-ordearen aurkako
gorrotoa eta iñoz, ikusiko dogun lez, matxinadea sortu be
bai. Bizkaitik eskerreak bialdu eutsoezan lege zarraren alde
egin ebanagaitik, eta Espartero, ori jakin ebanean, asarre
bizitan jarri zan bizkaitarren aurka. Gudaroztea gertatzeko
asmoa be izan eban.

Bizkaiko aldunak be sendo egozan euren bidean eta
Espartero'ri argi esaten eutsoen lege zarra aintzat artzen ez
ba'da eziña izango dala bizkaiko bakea.

Espartero'k Gomez de la Serna izendatu eban korrexido-
re baiña gobernatzaillaren eskubideakaz. Barriro asarretu
ziran aldunak ori gure foruaren aurka egoalako. Ormaetxe
joan zan Madrid'era berba egitera eta epaitegiak lege zarra-
ren arauz ipintea eskatu eutson. Espartero'k, ostera, aduanak
mugara ta itxasora eroatea eskatu eban eta naparran artu
eben jokabide ona ipiñi eutson eredu lez. Lege zarretik Late-
rri-legearen aurka dagoanik ezer ez dala onartuko esan
eutson eta korrexidorea epailari izatea zala laterri-legearen
aurkako jokabide bat.

1841n.urtean kendu eban betiko Esparterok foru-baimena
eta lege zar osoa arriskuan izteko bidea izan zan ori, ezelako
eragozpen barik Españatarrak euren aginduak sartzen ebeze-
lako. Emen be Espartero gertu agertu zan izkilluetara joteko.

Maria Kristiñak Frantzitik matxinadea gertatu eban eta
Espartero'ren aurka jagi ziran 1841n.urtean erregiñea ipinte-
ko, iru ziogaitik: Lege zarra kendu nai ebalako, emen
O'Donnell egoan erregiñearen alde. Bigarren errege-ordetza
legearen aurka artu ebalako, eta irugarren erlejioaren aurka
jokatzen ebalako. Euskaldunai eta naparrai forua euren esku
izango ebal berbea emon eutsen Maria Kristinak. Bilbo'n
Espartero'ren lagunak artu eta Orduña'ko mugara eroan ebe-
zan. Aldundiko balkoitik itzaldia egin zan.

Emen agertu zan Espartero'ren agindu gogor bat eta eus-
kaldunen lagunak Frantziara joan bear izan eben, Erregiñea-
ren ondora. Espartero'k ia foru guztiak kendu ebazan, Korre-
xidore Gobernatzaill'antzekoa ipiñi eban, udalak Españan
lez aukeratu bear ziran. Aldundia beste lurraldeetan lez Late-
rri-legearen barrura sartu zan, epailaritza Españakoa langoa
ipiñi zan, Aduanak itxas-ertzera aldatu ziran eta zerga-batzea
korrexidoraren ardurapean geratu zan. Eta izun-ordainkiak
be bai. Ez dira aitatzen gudaritza eta zergak.

Olazar'tar Marin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 € (3.000 pezeta). Ez
dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!